


errezeta

Natillak merengearekin

Osagaiak (6 lagunendako): esnea (litro 1); hiru arrautza; flanin sobre bat; azukrea; kanela adarra; limoi azala; eta madalenak.

Madalenak xerratan zatitu eta azpil lau batean paratu. Esnea, bi azukre koilarakatxo, kanela adarra eta limoi azala egosten jarri. Bitartean, azukre eta guztiko

hiru zuringo irabiatu harro-harro jartzeraino. Esneak irakiten duenean, merengea bota. Merenge opilak eginen dira; azpilean jarri, madalenen gainean. Limoia eta kanela esnetik atera. Baso batean flannina, ura eta azukrea nahasi; eta gero, esnetara bota. Apur bat egosi. Gorringoak azukre pixka batekin irabiatu eta pixkanaka-pixkanaka esnari gaineratu. Nahastura azpilean bota. Postrea karamelu likidoarekin apaindu, eta hotz zerbitzatu.



EGUNKARIA
Natillak merengearekin, hagitz postre gozoa.

'Palestinatik ekarritako testigantzak'. Gaur, 20:00etan, Euskal Jai gaztetxean.

LEGAZPI. **'Trenbide ondarea Gipuzkoan'.** Gaur, 20:00etan, Bikuña jauregian. Juan Jose Olaizola eskainia.

MIARRITZE. **'Liban, Israel, Jordanie'.** Gaur, 15:00etan eta 20:30ean, Gare de Midin. Joel Gallouxen eskutik.

URZAINKI. **'Situacion del euskara en Euskal Herria'.** Gaur, 20:00etan, udaletxean. Xabier Mendigurenen eskutik.

ZARAUZ. **'Egungo egoerari aurre egiteko alternatiba'.** Gaur, 20:00etan, Euskadiko Kutxaren lokalean. Aintzane Ezenaroren eskutik. Elkarrik antolatua.

dantza

ONDARROA. **Baltsea.** Gaur, 20:00etan, Kafe Antzokian.

ikus-entzunekoak

ARRASATE. **'Mifune'.** Gaur, 21:30ean, Amaia udal antzokian.

BASAURI. **'La novia de Lazaro'.** Gaur, 20:00etan eta 22:30ean, social antzokian.

BEASAIN. **'La habitacion del hijo'.** Gaur, 21:00etan, Usurbe antzokian.

BERGARA. **'Sexy beast'.** Gaur, 20:00etan, Novedades aretoan.

BILBO. **'Love in the afternoon'.** Gaur, 18:00etan, Arte Eder museoan.

'Witness for the prosecution'. Gaur, 20:30ean, Arte Eder museoan.

ELORRIO. **'Battle royal'.** Gaur, 20:15ean, Arriola kultur aretoan.

ERMUA. **'Smoking room'.** Gaur, 21:15ean, Ermua zinematokian.

ETXALAR. **Ander Olaizolaren bidaia Hego Amerikan barrena.** Bihar, 20:00etan, kultur etxean.

GASTEIZ. **'Carta a tres esposas'.** Gaur, 19:30ean, Luis de Ajuria aretoan.

IRUÑA. **'No man lands'.** Igandean, 20:00etan, Euskal Jai gatzetxean.

LASARTE. **'Ciudad sin limites'.** Gaur, 22:00etan, kultur etxean.

LEGORRETA. **'Los otros'.** Gaur,

erakusketak

Iker Valle eta Izotz Mendiburu. Urriaren 13a arte, Baionako Korsarioen Galerian.

IZOTZ MENDIBURU ESKULTOREA

«Aitaren eragina handia izango da nire lanetan, noski»



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Asier Azpilikueta | DONOSTIA

Iker Valle hernaniarrak eta Izotz Mendiburu hondarribitarrak «Erreflexua: bi espazioen arteko oreka» izeneko erakusketa paratu dute Baionako Korsarioen Galerian. Izotz —27 urte— Remigio Mendiburu eskultore entzutetsuaren semea da.

■ Nola sortu zen zu eta Iker Valleren arteko elkarlana?

Iker duela gutxi ezagutu nuen. Komentatu zidan erakusketa bat antolatu behar zuela. Erakutsi nizkion nire lanak, eta esan zidan gustura egingo zuela nirekin erakusketa. Bera margolaria da eta ibiltzen da beirak eta ispi luak margotzen. Nik eskulturak egiten ditut egurra eta beira erabiliz. Erakusketan, bien artean halako oreka bat sortzen da. Joko baten antzekoa da; ikuslea ispi luetan islatzen da, baina nola margotuta dauden ez da dena ondo ikusten.

■ Zenbat artelan dituzu Baionako erakusketan?

Nik eraman ditut zazpi lan: bost eskultura eta horma-pintura antzeko bi. Guztietan, egurra eta kristalarekin jokatu dut.

20:30ean, herri zineman.

OÑATI. **'Iris'.** Gaur, 20:00etan, Santanan.

ZUMAIA. **'En construccion'.** Gaur, 22:15ean, Aita Mari zinema aretoan.

bestelakoak

BEASAIN. **Ipuin kontaketa.** Gaur, 18:00etan eta 18:30ean, kultur etxeko liburutegian, Arrate Leundaren eskutik.

BERMEO. **Ipuin kontaketa.** Bihar, 20:00etan, udal liburutegian. Itziar Rekalderen eskutik.

DONOSTIA. **Mikologia jardunaldiak.** Gaur hasita, igandea arte, Aranzadi elkartearen.

ESKORITATZA. **Hispanitatearen egunaren kontrako jaia.**

Larunbatean: etxafuego jaurtiketa (12:00); paella jate herrikoa (14:00); poteoa taberna ibiltariarekin (18:30); *degustacion de tapas y finos* (19:30); Honky Tonks eta Juke Box taldeen kontzertua gatzetxean (22:00).

GASTEIZ. **Poesia erreztaldia.** Gaur, 20:00etan, Monthermoso kulturunean. La Botica literatura aldizkariaren eskutik.

HERNANI. **'Biitartean heldu eskutik'.** Gaur, 20:00etan, Milagrosan. Kiremen Uribe eman.

erakusketak

BARAÑAIN. **'Bardea, paisaia eta sentimendua'.** Arantxa Marco eta Amaia Zozaiaren margolanak. Urriaren 25a arte, kultur etxean.

BERA. **Alberto Martinezen margolanak.** Kultur etxean, urriaren 19a arte.

BERGARA. **Cati Rot, Maite Azkargota eta Pili Azkarateren margolanak.** Nahikari tabernan (Masterreka, 20), urria bukatu arte.

BURGI-ERRONKARI-IZABA. **Hizkuntz eskubideei buruzko erakusketa.** Urriaren 28 arte, Burgiko eta Erronkari herriko tabernetan, eta Izabako museoan. **GETXO.** **'Herriaren koloreak'.** Pedro Zarrabeitiaren argazkiak. Urriaren 17a arte, Erromoko erakusketa aretoan.

TA FALLA. **'Navarra etnografica. La conservacion de la memoria'.** Garces de los Fayos kultur etxean egonen da urriaren 13a arte.

ikastaroak

ANDOAIN. **Txalaparta ikastaroa.** Urriaren 11n, arratsaldeko 20:30ean, bilera eginen dute kultur etxean ikastaroaren gaineko informazioa emateko. **BERRIOZAR.** **Aisialdiko irakasleentzako ikastaroa euskaraz.** Urriaren 15etik 31ra, 15 ordu. Izena emateko epea urriaren 11n akituko da. Informazioa, 948-300359 telefonoan.

DONOSTIA. **Dantza ikastaroa.** Trebeska taldeak antolatua. Urriaren 15etik azaroaren 7a arte. Izen ematea, 943-297753 telefonoan.

EIBAR. **Eta kito!-ren ikastaroak.** Oinarrizko itzulpengintza, clown, metereologia, Eibarko euskara praktikoa

jubilatuendako. Urriaren 14tik Eguberriak arte. Izen ematea, Portalean edota...*eta kito!* euskara elkartearen (943-200918)

HERNANI. **Gau bertso-eskola.** J. L. Urdangarin eta Maialen Lujanbiorekin. Urriaren 16an hasita. Informazioa eta izen ematea, 943-332799 telefonoan.

IRUÑA. **'Liburuak irakurritz dibertitzen gara'.** Urriaren 16an, 20:00etan, bilera eginen dute Zaldiko Maldiko elkartearen ikastaroaren nondik norakoen berri emateko.

IZURA. **Argazki ikastaroa.** Gaur, 18:30ean, Haize Berri kultur etxean.

PLENTZIA. **Emakumeentzako ikastaroak.** «Jende aurrean hitz egin», «Autoaren mantenimendua» eta beste. Informazio gehiagorako 94-6775541 telefonora deitu.